

## LAN BILA ZABILTZA?

### Enplegua bilatzeko teknikak

Gazteek betidanik izan duten kezka nagusietako bat lan duin bat aurkitzea da. Jakin ezazu, prestakuntza on bat izateaz gain **komenigarria izaten dela enplegua bilatzeko teknika egokiak erabiltzea**. Era honetan, zure aukerak nabarmen handituko dira.



Jarraian, pista batzuk eskainiko dizkizuegu:

1. **Aztertu zure gaitasunak.**- Egin behar duzun lehen gauza autoanalisia da. Ezagutu ezazu zeure burua. Aztertu zeintzuk diren zure trebetasuna, gaitasun pertsonalak, mugak, ze motatako jarduera zabiltzan bilatzen...
2. **Aprobetxatu aukera guztiak.**- Toki askotan aurkitu ditzakezu lan eskaintzak. Ezin duzu aukera bat ere baztertu. Egunkarietako iragarkiak, enplegu bulegoak, alde baterako laneko enpresak, Internet, enpresa eta kontsultoretzak, unibertsitateetako lan poltsa eta praktika eskaintzak, profesionalen elkargoak, sindikatuak, gazte elkarteak... Gainera, harreman pertsonalak ere bultzatu ditzakezu zure eskaria korreoz bidaliz edo enpresan bertan pertsonalki aurkeztuz.